

## NIREAK

Oso nireak zarielako  
maite zaituet biotzez.  
Guztiz zuena naz-eta, maite  
zaituet odol txit gaztez.

Euzko-mutillak, mandigoizale;  
euzko-neskatxak, dantzari;  
euzko-gizonak, langille zintzo;  
euzko-andrak, etxe-euslari.

Euzko-apaizak, fede-ereille;  
euzko-prailleak, ikastun  
zorrotz ta sakon. Euskaltzaleak,  
euzko-abendaren lagun.

Euzko-itsaso, lur, mendi, basoak.  
Lengo, oraingo ta geroko  
euskaldun danak, biotz-erdian  
josi zaituet betiko.

*Dirauket*

## IPURTARGIA TA ZAPUA

Zidar kolorez da apaindu  
zelai orlegia,  
Gau ama goiztar dala  
lurrera jatsia.

Ertzeko bedarrean  
zuzi mee zurizka...  
Zer ete? Zer ez ete?  
Izarra dizdizka?

Ipurtargia dozu  
gauaren txirlarri,  
bere txikian guri  
opa nairik argi.

Urreko osiñetik at  
—bekaitzaren zantzu!—  
zirrin-zarran or dator  
soin arrezko zapu.

Gau-argi pitiñari  
zoria galtzeko  
zitala bota dautsa  
aratu daneko.

Il-bearrik gaixoa  
aren pozoi mendeko!  
Bizi-naiak, ostera,  
barruan zimiko!

—Zergaitik nok zizta?,  
etsaiari diñotsa.  
—Lar argi dokalako  
bota dauat bitsa.

Nok bere barrura  
sartu bei ardura.

*Igotz*